

Ebazpena: R066/2023

Espedientea: E23/2018

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) gatazka planteatu du Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) aurka, SSAk langile jakin batzuei ordaindutako lan-etekinen gainean egindako atxikipenak (PFEZ) ordainarazteko eskumena dela-eta. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 23/2018 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- SSA sozietateak Bizkaian dauka egoitza fiskala; bada, ingeniartzako proiektuak eta azterlanak egiten ditu, eta obrak zuzentzeko laguntza teknikoa ematen.

2013an, SSAk lurralde erkidean eta/edo atzerrian lan egiten zuten langileak zituen kontratatuta, eta BFAn sartu zituen, oso-osorik, urte hartan urtarriletik maiatzera bitartean ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak. Langile horietako batek ere ez dauzka Bizkaian ez ohiko bizilekua, ez egoitza fiskala.

2.- SSAREN jardueraren zatirik handiena Leioan (Bizkaia) gauzatzen da, bertan kokatuta baitaude negozioaren administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza. Halere, laguntza teknikoetarako, langileek obraren tokian egon behar dute, eta, horretarako, bulegoak irekitzen ditu, langile horiei alta emateko.

3.- 2013ko ekainean, SSAk lantoki bat ireki zuen Madrilen, eta hantxe zentralizatu zituen nazioartekotzeko jarduerak (aurretik, SSAICSAk egiten zituen lanok, eta Madrilen zituen egoitza soziala eta egoitza fiskala).

4.- 2017ko irailaren 8an, PFEZ dela-eta 2013ko urtarriletik maiatzera bitartean langile jakin batzuei egindako atxikipenak itzultzea eskatu zion ZAEAK BFARI; izan ere, langile horiek lurralde erkidean eta/edo atzerrian aritu ziren lanean, eta ez zuten Bizkaian zerbitzurik eman.

5.- 2018ko martxoaren 7an, BFAk uko egin zion ZAEAK eskatutako zenbatekoak itzultzeari; batetik, langileetako batek lantokia Leioan (Bizkaia) zuelako eta, beraz, Ekonomia Itunaren 7.Bat artikulua bigarren paragrafoa aplikatu zitekeelako, eta, bestetik, atzerrian egindako lanengatiko atxikipenak BFARI zegozkielako, langileei atxikitako lantokia Bizkaian baitzegoen.

6.- 2018ko apirilaren 16an, ZAEAK inhibizio-errekerimendua egin zion BFARI, eta hark bere eskumena berretsi zuen, 2018ko maiatzaren 10ean ZAEARI egindako jakinarazpenaren bidez.

7.- 2018ko ekainaren 11n, ZAEAK gatazka planteatu zion Arbitraje Batzorde honi, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da. Beraz, izapidea bete da, BFAk alegazioak egin eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkez eta proposa ditzan. Halaber, interesdunei espedientearen berri eman zaie, eta, azkenean,

ZAEAk, amore eman duenez, onartu egin du BFAk daukala 2013ko urtarriletik maiatzera bitartean SSAk egindako atxikipen guztiak ordainarazteko eskumena.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

2.- Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikulua

Ratione temporis indarrean zegoen Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikulua honako hau jasotzen du:

«Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

a) EAEn egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta EAeko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak EAEn egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago».

Hortaz, 7.Bat.a) artikulua bigarren paragrafoan, *iuris tantum* presuntzio hau ezartzen da: zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan eman direla ulertuko da (kasu honetan, Bizkaian), langileari atxikitako lantokia lurralde horretan badago.

Manu horretan, ez zen ezer adierazten (ez behintzat, berariaz) atzerrian egindako lanei buruz. Dena dela, Arbitraje Batzorde honek gaiari buruz mintzatzeko aukera eduki zuen; zehazki, 6/2018 Ebazpenean (13/2015 Gatazka). Bada, batzorde honek, Auzitegi Gorenaren 1998ko azaroaren 14ko Epaiak finkatutako doktrinari jarraikiz (ECLI:ES:TS:1998:6730), langilea atxikita zegoen *lantokia* hartu zuen interpretazio-irizpide egokitzat, zehazteko zer administraziok duen eskumena nazioarteko uretan nabigatzen duen ontzi bateko tripulatzailleek lortutako etekinen atxikipenak ordainarazteko. Irizpide hori berariaz bermatu zuen Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 4ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3144), zeinaren bidez ebazpen haren aurka jarritako auzi-errekurtsioa ebazten baitzen. Hori horrela, ezin hobeto estrapolatu daiteke doktrina hura atzerrian lan egiten duen edozein langileri ordaindutako lan-etekinetera.

Interpretazio horrek aukera ematen zuen Ekonomia Itunaren arau-hutsunea integratzeko, harik eta 2017an Ekonomia Itunean egindako erreformak indarra hartu zuen arte. Erreforma hori 2017ko abenduaren 30ean jarri zen indarrean, eta aipatutako irizpidea positibizatu zuen, oro har, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan sartutako aldaketarekin, zeinaren testua baita gaur egun indarrean dagoena.

«a) EAEn egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta EAEn egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Teletanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokian egin direla».

lido beretik jo dute 21/2022 (35/2016 Gatazka) eta 24/2022 (28/2017 Gatazka) ebazpenek, zeinak ZAEAk ere aipatzen baititu amore ematea justifikatzeko.

3.- Amore ematea

Interesdunik agertu ez denez (eta, bereziki, zergapekoa bera ez denez azaldu), eta ikusirik ZAEAk amore eman duela eta BFari aitortu diola SSAk 2013ko urtarriletik maiatzera bitartean egindako atxikipen guztiak ordainarazteko eskumena, bertan behera geratu da bi administrazioen arteko gatazka, eta, ondorioz, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean abiarazi den prozeduraren xedea gerora galtzea eta artxibatzea ekarri du horrek.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAk amore eman izanak prozeduraren xedea gerora desagertzea ekarri duelako, eta onartzea BFAk eskumena duela SSAk 2013ko urtarriletik maiatzera bitartean egindako atxikipen guztiak ordainarazteko.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta SSARI.